

**RAMON
SAIZARBITORIA
EGUNERO
HASTEN
DELAKO**



EGUNERO HASTEN DELAKO

Narratiba, 115

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahiz baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;
91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jas du.

Azalaren diseiuna eta irudia:

Alberto Corazón

Maketazioa:

Erein

© Ramon Saizarbitoria

© EREIN. Donostia 2019

ISBN: 978-84-9109-459-3

L. G.: SS-445/2019

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Ramon Saizarbitoria

EGUNERO HASTEN
DELAKO



erein

Egunero hasten delako nobela 1969an argitaratu zenetik berrogeita hamar urte bete dira. Orduz geroztik, edizio ugari izan ditu. Edizio horien guztien azalak jatorrizkoa oinarri zuen aldæra bat izan dira. Irakurleak esku artean duenak urte haren oroigarri izan nahi du, kultur molde bat bultzatu zutenen oroigarri, disiplinartekotasunaren, sasoiko lankidetzaren eta ekintzailetzaren omen. Horregatik, jatorrizko azala berreskuratu dugu, Alberto Corazónek egin zuena.

HITZAURREA

LUR argitaletxeak 1969an lehen aldiz kaleratu zutenetik, hiru argitaletxe desberdinen eskutik argitaratu da, oker ez banago, nire opera prima den nobela hau. Berrargitalpen horietan, batzuetan behintzat, jatorrizko testua berritzen joan da, ortografiaren eta lexikoaren aldetik batez ere, euskara idatziak azken mende laurden honetan ezagutu dituen aldaketa etengabeei –etengabeegiak ere esango luke norbaitek, ez arrazoirik gabe–, hau da, garaian garaiko modari edo arautegiari egokitzeko asmoz.

Egokitze lan horiek beharrezkoak ziren, izan ere, 69an erabiltzen zen euskarak –eta bereziki nik erabiltzen nuenak– ez baitu zerikusirik oraingo euskara garatuarekin, eta jatorrizko testuaren irakurketa oraingo irakurle bati nekeza gertatuko litzaioke. Bestalde, hurrenez hurrengo moldaketak beste gauza askoren artean filologo oso konpetenteak diren pertsonen ardura izan dira, zeintzuen artean eskuizkribuaren zuzenketa egin zuen Ibon Sarasolaz gain –«eskuizkribu»

jatorrizko zentzuan, eskuz idatzitakoa zuzendu baitzuen—, Koldo Izagirre, Ramon Etxezarreta eta Iñaki Iñurrieta ditudan gogoan. Guztiei nire esker ona, eta barka norbaiten izena aipatzea ahaztu badut.

Duela pare bat hilabete, argitalpen berri bat egiteko asmoa zuela eta, Iñaki Aldekoa adiskide eta editoreak komentatu zidan hainbeste errebisioren ondoren, testuak ez ote zuten bere jatorrizko zerbitu galdu, ez ote zen jatorrizkotik gehiegi urrundu, arrisku hori ere izaten baita, gehiegikeria filologikoarena, alegia —gehiegikeria terapeutiko moduko bat edo—, eta ez ote zen komeni, originala eskuan, neronek berrikustea eta kezka lexikalak alde batera utzita, hala baneritzon, neurera ekartzea berriro.

Baietz esan nion, egingo nuela, nahiz eta ez naizen sekula gai izan neure testu bat behin argitaratua izan den ondoren irakurtzeko. Bi lerro begizatuta, lotsa eman ohi dit hain dorpeki idatzia deritzodana erre-mediorik gabe beste norbaitek irakur dezakeela pentsatzeak. Baina jatorrizko *Egunero hasten delakon* bazen akats tekniko bat, nobela aipatuta ikusten nuen bakoitzean, eta azken urteotan sarritan izan da, nire lotsarako gogora etortzen zitzaidana. Gisèle izeneko protagonistak abortatzen duen pasartean, nolabait ere eszena girotzeko, ginekologoak, halako batean, forzeps bat eskatzen dio laguntzaileari. Garaian, nik

ez nekien fitsik abortatzeko teknikei buruz, ez haurdunaldiaren fisiologiari buruz, eta, ondorioz, ezta protagonistaren gestazio denborari zegokion enbrioiaren neurriari buruz ere, eta pentsatzen dut filmaren batean ikusitako irudiak hala iradokita, efektu dramatiko bat lortzeko edo –besterik ezean ere bai– azaltzen nuela bestalde hain izen bortitz eta zirrargarria duen tresna kirurgikoa. Baina, noski, agerikoa denez, erabat lekuz kanpo gertatzen da zentimetro bat baino gehiago izan beharko ez lukeen enbrioia askatzeko aipatzea, hain zuzen ere, umeak erditze kanaletik irteteko arazoak dituenen, handiegia delako sarritan, erabiltzen den tresna baita. Kontua da «lehen nobela modernoa» eta horrelakoak entzuten nituenen, hanka sartze horren oroimenak torturatzeko ninduela. Hori gutxi balitz bezala, nire ibilbide profesionala zela-eta, garai batean haurdunaldiari eta erditzeari buruz dezente irakurri behar izan nuenez –*Perinatalidad y prevención* eta *Nacer en Guipúzcoa* ere idatzi nituen, besteak beste–, oraindik ere mingarriago eta lotsagarriago gertatzen zitzaidan gaztetako arinkeria haren oroimena. Gainera, orain, literatura egiteko saioan zerbait zaintzen badut, obesiboki zaintzen dudala esango nuke, zehaztasun teknikoa da, eta irakurle gisa jasangaitza gertatzen zait zabarkeria.

Beraz, ez ninduen kezka filologikoak eramán nobela berrirakurtzera —era horretako kezka gutxi izateaz gain, bai bainekien zuzentzaileek egoki egina izango zutela beren lana—, baizik eta hainbat urtetan zehar gogaitu ninduen aipaturiko akats tekniko hori zuzentzeko asmoak. Pentsatu nuen mereziko zuela behingoz forzepsaren aipu desegokia kentzea, behintzat.

Kontua da orain arte egin gabe nengoena egiten saiatuko nintzela hitza eman niola Aldekoari, neure nobela bat irakurtzekoa, eta, egia esateko, alde zurretik uste baino gutxiago kostata bete dut eginkizun hori, ziur asko idatzi nuenetik hainbeste urte pasatu direnez, hain urrunekoa gertatzen zait, ezen ez baitezait neurea denik ere iruditzen. Zer esan, duela ia berrogei urte, hogeita hiru nituela, idatzitako nobela berriro irakurri ondoren?

Lehendabizi, freskoa, hezea iruditu zaidala. Batek baino gehiagok esan izan dit hori, oraindik ere zutik mantentzen den historia dela, baina, jakina, idazlearen inguruan intentzio oneko jende gehiegi izan ohi da eta ez du fidatzerik. Baina, egia esateko, neuri ere harrigarria gertatu zait zein elementu gutxirekin lortu nuen, zein efizienteki, beraz, historia bati eusten. Esan nahi dut lorpena izugarria ez bada, aski ona dela erabilitako baliabideak kontuan hartuta. Bestalde,

teknika narratiboa, inkoherentziaren bat alde batera utzita, kontakizunaren zerbitzuan aurkitzen da, bizitasuna eta indarra emateko; esan nahi dut ez dagoela teknikakeriarik, ez dago ezer alferrik, edo ezer gutxi. Hizkuntza, bai, narrasa gerta lekiok norbaiti, baina, gainerakoan, agerikoa da narrazioa erabat, hitzez hitz, egitasmo zehatz bati jarraiki planifikatuta dagoela.

Ez dakit ondo egiten dudan inpresio hauek azaltzen, norbaitek pentsa baitezake neure burua losintxatzeko joera dudala, baina esan dut lehen ere oso urrunekoa gertatzen zaidala egilea eta, edozein kasutan ere, barka beza irakurleak izan nintzen gaztearen aurrean, merezi zuen baino onberagoa banaiz.

Nobela abortuaren aldeko alegatu bat da –abortua ilegala zen garaian idatzitakoa– baina, hau ere idazle hasiberri haren alde, ez da inondik ere panfleto bat. Abaituak –Mikel Hernandez Abaituaz ari naiz– ongi igarri dion bezala, nire nobeletan beti dago edo ia beti –beti esango nuke– tesiren bat defenditu nahia. Aitortzen dut. Nahiz eta ez naizen literatura konprometituaren zale, nahiz eta gehienetan gorroto dudana joera hori, ezin erreprimitu dut nire fikzioan mezu sozial eta politikoak sartzeko beharra, eta mezu horiek kontakizunean era literario batean –disimuluan ere, esan nezakeen– integratzeak ematen dizkit lanik handienak, hau da, predikatzen ari naizela

nabari ez dadin, esan gabe esatea alegia. *Egunero hasten delakon* abortuaren aldeko jarrera argia da, esplizitua, zuzena eta ausarta, lotsagabea garai hartarako. Horregatik iruditzen zait –zentsura gaietan adituek nahi dutena esango badute ere– gazteleraz idatzia izan balitz, ez zuela 1969an argia hain erraz ikusiko. Behin baino gehiagotan entzun dut zentsura frankista pasatzeko euskaraz idatzia izatea eragozpen gehigarria zela testu batentzat. Egia izan daiteke testu politikoei dagokienez, baina iruditzen zait *Egunero hasten delakoren* kasuan alderantziz izan zela, bidea erraztu ziola alegia. Noski, lagunduko zion halaber gurearekin zeriikusirik ez zuen urrutiko errealitate baten kontaktuzuna izateak.

Arestiren gomendioari jarraituz, esango nuke –bar-ka beza irakurleak digresio hau, baina, beharbada, garai hura ezagutu ez zuenari nobelaren testuingurua ulertzeko ongi etorriko zaio–, Antonio Arrue euskaltzainari pasatu nion eskuizkribua, irakur zezan eta esan ziezadan argitaratu ahal izateko modurik ikusten zion. Arrue, sasoi hartan 69 urteko gizona, Asteasun jaiotako abokatua zen, Donostiako Okendo kalean bizi zen tradizionalista, Francoren Gortee-tako prokuradorea eta Euskaltzaina; nolabait esateko, erregimenaren euskaltzalea. Zentsore funtzioak ere betetzen zituelakoan nago. Dena den, maite zuen

bere burua Arestiren adiskide gisa azaltzea, nazionalisten aurrean batez ere, euskara politikaren gainetik jartzen zuela, eta, bide batez, pertsona «irekia» zela erakusteko. Hori da nire susmoa. Kontua da ildo horretatik, gizonak, oso era atseginean dena esan behar badut, nobelarekiko ez-adostasuna aitortu zidala, baina era berean azalduz ez zuela ikusten zergatik ez ziren erabili behar euskaraz ere beste hizkuntzetan tratatzen ziren gaiak. Argitaratzeko baimen eske garaiko Informazio eta Turismoako delegatuarengana joateko esan zidan; bide batez, bere aldetik eragozpenik ez zuela ikusten esateko baimena eman zidan. Hala egin nuen. Delegatua Felipe de Ugarte zen, urte hartan Donostiako alkate izendatuko zuten gizona –beste bidegabekeria askoren artean, Kursaal zaharra botatzea baimendu zuena–, aurpegi gaiztoko tipo bat, bibote fina zuten haietakoa eta betaurreko beltzak kentzen ez zituenena –Pinochet erretratu famatu batean bezala dut gogoan–. Arruek esandakoa azaldu nion, eta kezkarriak gertatu zitzaizkidan pare bat segundoz betaurreko beltzen atzetik begiratu ondoren, besterik gabe, baimena emateko agindu zion idazkariari.

Ez dut gogoan argitalpenak inongo arretarik merezi izan zuenik. Esango nuke garaiko giroan ez zela gustukoa gertatu. Argitaratu aurretik iritzia eskatuz

pasatu nion idazle ezagunen batek ere ez zuen entusiasmo handirik azaldu. Ibon Sarasolak bai, harrera gartsua egin zion, bion laguna zen neska baten bitartez Duque de Mandaseko etxeko gutunontzira Friburgotik helarazi nionean. Gartsua baita Ibon, eta kideko asko ez bezala, eskuzabala, lan batek merezi duela iruditzen zaionean. Beti eskertu izan diot harrera hura, eta aitortu behar dut niretzat Ibon izan dela, urte askoan, idazle batzuek, ez baitirudi guztien kasua denik, idazterakoan gogoan izaten dugun irakurle eredu.

Harenaz aparte, ez dut beste laudoriorik gogoan; errieta bat bai, eta merezi du agian haren berri eman dezadan, garaia girotzeko hau ere. Jose de Arteche idazlea izan zen errieta egin zidana. Gaztelaniaz idazten zuen *–El abrazo de los muertos* izango da haren lanik ezagunena–, eta garaian, 63 urte zituela, Probin-tziako Diputazioko Biblioteka esaten zitzaionaren zuzendaria zen. Oso zen katolikoa, Julien Green idazlearen antz fisiko handia zuen, bere eredu ere bazela esango nuke, eta harro zegoen horregatik. Bibliotekako irakurketa aretoa beren liburu eta apunteekin ikastera joaten ziren gazteez beteta egon ohi zen. Esan nahi dut gutxienak zirela bertako liburuak kontsultatzen zituztenak, eta ni nintzen horietako bat, ziur aski, urte haietan ikasi baino gehiago irakurri

egiten nuelako, irakurtzen nuenaz oroitzen ez naizen arren. Kontua da noizbehinka fitxategian egoten nintzela obraren baten bila. Fitxategia armairu luze bat zen, pertsona baten altuera baino zerbait baxuagoa, bibliotekako sarrera eta funtzionario arduradunaren lan aretoa banatzen zituena. Fitxategi aurretik areto hori bistan zegoen, beraz. Funtzionario higatu bat egon ohi zen, bata gris higatu bat soinean, bere mahai atzean eseria, zigarro bat ezpainetatik zintzilik zuela beti. Bere portzelanazko listuontzi biribila dut gogoan, lurrean, mahai ondoan izaten zuena, nazka ematen zidalako. Areto horretan, fitxategitik eskuin aldera, Artecheren bulegoa zegoen, haren ahots burrunbatsua handik zetorkidalako dakit, baina ez nintzen bertan sekula egon. Batzuetan, ordea, fitxategiaz bestaldeko areto horretan egoten zen tertulian, batzuetan baino gehiago, esango nuke. Dakidanez, Miguel Pelay Orozco idazle Barojazalea zen solaskideetako bat, gainerakoez ez naiz akordatzen, ezagutzen ez nituelako ziur asko. Kontua da, behin fitxategi aurrean nengoela eta Arteche beste aldean jaun gehiagorekin, aulkian atzera botata, ohi zuen bezala, halako batean, hatz erakuslearekin seinalatuz zera galdetu zidala: «Zu Saizarbitoria zera, ezta?». Ez zuen euskararik sekula erabiltzen, bibliotekan behintzat. Ni pozik, ezagutu ninduelako; norbait nintzen; ez

zidan, ba, eskainiko ikertzaileen areto baketsuan sartzeko baimena, non beti zeuden aulki libreak eta ez zen ikasleen algararik jasan behar...? Baietz erantzun nion. Eta berak, orduan, sabaia dardara suminkorrez seinalatuz, «barkamena eskatu behar diozu Euskal Herriari belauniko», esan zidan, bere ahots burrunbatsuaz Jainkoaren hirak hartuta. Ni, txundituta, beldurtuta eta lotsatuta. Lotsatuta, batez ere. Ez dakit zer gehiago esan zuen, ez bainintzen izan gai entzuteko ere. Mundu guztia zegoen niri begira, bere solaskideak, funtzionario higitua eta irakurketa areto osoa, eta, noski, ni kezkatuta inor gutxik jakingo zuelako han euskaraz, eta zekienak ere errieta hura zertara zertorren jakingo ez zuenez, libururen bat lapurtu edo zerbait askoz grabeagoa egin izango nuela pentsa zezaketelako. Gutxi pentsa zezakeen jende hark bibliotekako zuzendariak nik idatzitako liburu batengatik egiten zidanik errieta. Horrek harrotuko ninduen, alegia, jendeak jakiteak nire obrak bere onetik atera zuela lanorduetan tertulian egoten zen karka hura, baina hori ez zen oso probablea. Normalena zen pentsatzea liburuak lapurtzen harrapatutako miserable bat nintzela, eta lotsa horrekin ez nintzen gehiago biblioteka hartan azaldu. Gero, ez dakit nola, jakin nuen gizona haserretu zuena, nobela bera baino gehiago –ziur asko ez baitzen irakurtzera iritsi–, azala

izan zela. Lehendabiziko argitalpenaren azala orain mundu zabalean ezaguna den Alberto Corazón diseinatzailearen lana da, eta bertan neska baten aurpegia azaltzen da. Artechek Santa Bernardetteren antza hartu zion, nonbait, eta pentsatu bide zuen asmo txarrez aukeratu genuela abortatu egiten duen protagonista irudikatzeko. Ez zen ideia txarra –bekatuaren kontra dagoen jende horrek bekatua baitu buruan–, baina niri behintzat ez zitzaidan halakorik burutik pasatu. Alberto Corazóni galdetu nion ea asmo horrekin egin zuen azala –zeren egiaz Santa Bernardette izan baitzitekeen, eta baita Santa Ines ere, hala nahi izanez gero–, eta ezetz esan zidan, hain zuen ere, berarentzat familia bezalakoa zen Donostiako Castells-Artetxetarretako neska bat zela. Uste dut egungo giroan nekez imajina daitekeen eszena honek balio duela nire garaiko hura ulertzen laguntzeko eta, batez ere, orduko urratzaile modernook zenbateraino ginen gizajo erakusteko; neurri batean, hain adierazgarria delako, eta Corazónen oroimenez ere, argitalpen berri bakoitzaren azalean gorde nahi izan dut neskato horren irudia, zeinarengatik, berak jakin gabe, errieta zital hura jaso behar izan bainuen.

Askotan kontatu dut *Egunero hasten delako* idatzi nuenean, bokazio literarioak bainoago euskararen egoerak bultzatu ninduela, eta ez dut uste nire lelo

hori ongi ulertua izan denik. Abertzaletasun sutsu baten deia izan balitz bezala interpretatu baita, eta hori ere bai, agian, baina hori bakarrik ez baitzen izan. Idazte kontuan, kontu guztietan bezala, bi eragile klase izan ohi dira, aldez aurrekoak eta bultzatzaileak. Umetan literaturazalea nintzen, asko irakurtzen nuen, eta idatzi ere egin izan nuen. Gogoan dut koaderno bat Donostiako zenbait lekuren –portua eta Okendo plaza baziren, behintzat– eta giroren deskripzio idatziekin eta neure ilustrazioez apaindua. Baina egia da euskararen egoerak bultzatu ninduela, bidea erraztu zidala, galdera bati erantzun nahiak azken finean: zergatik ez gure hizkuntzan ere beste hizkuntzetan idazten diren historiak?

Banuen idazteko grina, baina zulo batek, nabarmena zen gabezia kulturalak, eraman ninduen beharbada beste egoera batean emango ez nuen pausoa ematera, izan ere, erraza baitzen, deus ez zegoelako, ia deus ez. Horregatik egiten genuen teatroa ere. Garaian antzezten ziren obrek gai hau izan ohi zuten gutxi gorabehera: Andregaiia herrian utzi eta Ameriketara emigratu ondoren, baserrira aberastuta eta mutilzahartuta itzultzean, maitea beste batekin ez-konduta aurkitzen duen gizonaren historia. Zerikusirik ez, talde gazteek erdaraz antzezten zituzten obrek. Panorama horren aurrean, Beobidek zuzentzen

zuen Jarrai taldekook Miller edo Camus bezalako egi-
leak antzetzen hasi ginen arrakasta nahiko handiz,
euskaldunen sektore tradizionalistenak joera hori,
arrotza zen neurrian, jatorra ez zelako alegia, arbuia-
tzen bazuen ere. Gogoan dut, bereziki, Millerren *De-
nak nire semeak (All my sons)* obraren errepresentazio
bat. Azpeitian zen. Keller familiaren etxe aberatsa
antzetu genuen –Mikel Forcada izan ohi zen deko-
radorea–, eta eszenatokian, garaiko etxeetan ikusten
ez ziren altzari moderno eta aberatsez hornitua, in-
terpreteak dotore jantzita azaltzen ginen –eszenaren
batean esmokinez, esango nuke–. Antzezlanak buka-
tuta, zenbait ikusle inguratu zitzaizkigun, emakume
adindu batzuk –niretzat orduan adinduak zirenak
behintzat–, besteak beste, eta zin dagit ikusi berri zu-
ten obra gaztelaniaz eman genuela uste zutela, pen-
tsatzen dut arrotza gertatzen zitzaien euskara batua
erabili genuelako, baina, batez ere, testuinguruaren
modernotasuna eta dotorezia ezin zutelako euskara-
rekin lotu.

Aurrerago, teatroa egin ahala zaletzen joan gine-
lako eta gure inpultso aurrerakoiari jarraiki, aban-
goardiako obrak antzetzeari ekin genion neurrian,
ez-ulertze arazo gehigarriak izan genituen. Behin
–Donostiako Antzoki Zaharrean, esango nuke–,
Eugène Ionescoren *Le nouveau locataire* –ez dakit

nola zuen izena euskaraz— obraren azken eszena amaitu eta oihala jaitsi ondoren, publikoak, absurdo hartaz deus ulertu ez eta eserlekuetatik mugitu gabe jarraitzen zuenez, proszeniora atera beharra tokatu zitzaidan «Jaun-andreok, honekin amaitu da obra» esatera.

Urte haietan, Donostiako kaleetan, apenas egiten zen hitzik euskaraz —Bilbon gutxiago, eta Gasteizen zer esanik ez: ni 58 urte inguruan interno egon nintzenean, bi euskaldun izango ziren han, Eibartarra bata eta betiko Azkoitiarra bestea—, jendeak ez zeki-elako gehienetan eta ez zuelako oso dotore ematen askotan. Ahaztu zaigu jada, baina entzute handikoak izan ziren Pello Kirten Donostian eta Txomin del Regato Bilbon, baserritarren gaztelania irri-garri utziz, *historias y susedidos* kontatzen zituzten haiek. Herrietatik kapitalera etortzen zen jende asko —neskak bereziki— lotsetan zen euskaraz egiteko. Euskararik entzuten ez bazen, ez zen jada errepresio kontua, hori lehenago izan zen eta nik ez nuen ezagutu, estatus baxuko hizkuntza zelako baizik, gaztelaniaz hitz egiteko gai ez ziren baserritar ezjakinen kontua.

60ko hamarkadan, Donostiako estudiante itxura bazenuen, Gipuzkoako herri ez hain txikietan ere kanpotartzat hartzen zintuzten, oso kanpotartzat esan nahi dut, eta taberna batera sartzen bazinen,

erreparorik gabe hitz egin zezaketen zutaz euskaraz, ez baitzitzaien burutik pasatzen euskalduna izan zintezkeenik. Zenbat iruzkin lotsagabe entzun behar izan nuen, baina zeinen gozoa mendekua alde egiterakoan esatarien aurpegietan lotsa eta txundimena ikusita, «ongi izan» edo, hitza dotoretzeko, «izan untsa» exotiko batekin despeditzen nintzenean. Hori zen gure asmoa, nirea behintzat, euskaraz ere bazegoela moderno izatea, ez genuela lotsatu behar euskara erabiltzeagatik. Are gehiago, Francoren Espainia kulture, ilun eta atzeratu hartan, euskarak eman zezakeela, hain zuzen ere, *a touch of distinction*, modernotasun ukitu bat, alegia.

Agerikoa denez, iraganaren bisitan horrenbeste luzatze honek aguretu egin naizela adierazten du. Barka beza, batez ere, garai haiek ezagutu zituen irakurleak, baina, neure burua desenkusatu nahi ez dudalarik ere, hain da handia egungo egoera juzgatzerakoan nondik gatozen ahanzteko daukagun joera –iragana desitxuratzekoa ez denean–, ezen ahal dudan bakoitzean neure testigantza ematera behartuta sentitzen bainaiz.

Egunero hasten delakora bueltatuz, arestian freskoa eta hezea dela esan dut. Horrekin adierazi nahi nuen bertan darabiltzadan edo nerabiltzan gaiak, immigrazioa, hezkuntza, sexua, abortua bera, pil-pilean

daudela oraindik. Lerro hauek idazten ari naizela, Portugalen abortuari buruz eginiko erreferenduma-
ren emaitzak agertzen ari dira telebistan. Saio berean,
emakume ginekologo nafar bat ari da esaten Nafa-
rroan –gure arragoa omen den horretan–, azken ho-
gei urteotan, ez dela abortu legal bat bera ere egin, eta
ez beharrik izan ez delako, noski. Lehenago, legea in-
darrean jarri berritan, bakan batzuk egin omen ziren,
berak –telebistan azaltzen zen emakumeak alegia– ba-
ten bat, baina egiteari utzi behar izan omen zion
mehatxu kezkarriak jaso zituelako. Hori, ordea,
adierazle bat besterik ez da; asko legoke abortuaz
hitz egiteko Euskal Herriko beste eskualdeei dago-
kienez, nahiz eta, zorionez, ez gauden erabat ilegala
zen garai haietan.

Sexua asko aipatzen da *Egunero hasten delakoren*
orrietan, eta egiten den trataera ikusita, egungo ira-
kurleren batek pentsatuko du inuzentea naizela, egin
dudan bezala, nobela oraindik ere freskoa eta, are
gehiago, hezea dela esaterakoan. Urte haietako alda-
rrikapen nagusia, nobelan ageri dena –sexua ugalket-
atik bereiztea–, nire auzoko erretoreak berak ere
onartuko luke, ziur asko, gaur egun. Hala ere, Gisè-
lek, neska protagonistak, sexua eta maitasuna batuta
nahiko lituzke oraindik, eta hori, gaurko munduan
jada anakroniko xamarra gertatzen da. Nobelan zehar,

harreman sexualak izendatzeko «maitasuna egin» esapidea erabiltzen da, «larrua jo»ren ordez. Gaur egun, askoz gehiago erabiltzen da «larrua jo», eta gazte askori entzun diet «maitasuna egin» kurtsia dela. Koldo Izagirrek esan zidanez, neu izan omen nintzen lehena esamoldea erabiltzen, eta ohorea litzateke hala balitz. Larrua jotzea Bilboko La Palancan egiten zena zen, edo erromeria bukatu ondoren artasoroan atximur batekin hasten zen hura. Gutako batzuek beste musika bat jarri nahi izan genion sexuari, eta aireak, garaian erremediorik gabe, frantses kutsukoa izan behar zuen.

Egun, sexua eta ugalketa bakarrik ez, sexua eta maitasuna bera ere argi bereiztu ohi dira; orokorrean, gure gizarteak onartzen du maitasunik gabeko sexua, eta, are gehiago, badirudi zibernetikoa bihurtzen ari den mundu honetan, ukipen fisikorik gabeko sexua ere gero eta normalagoa bilakatzen ari dela. Ondo deritzot, bakoitzak antolatu beza nahi duen bezala bere festa, baina susmoa dut, goazen bitetik, sexua, bakarrekkoa nahiz taldekoa, ez ote den bilakatuko masturbatze ariketa egoentriko eta obesibo konpultsibo triste bat. Auskalo, ez naiz ni izango askatasun sexualari –prostituzioaren legalizazioarekin zerikusirik ez duen kontua, euskal idazlearen batek ikusten ez dakien arren– mugak jarriko

dizkiona, baina, nolabait esateko, Gisèleren nostalgia sentitzen hasia naiz.

Baina jada oso ondo ulertzen ez ditudan sexu historiak utzita, eman diezaiodan amaiera hitzaurre honi birmoldaketari buruzko pare bat argibiderekin. Esan dudanez, azkeneko argitalpena berrikusten hasi nintzenez, iruditu zitzaidan, orokorrean, nobelak izan dituen zuzentzaileek lan ona egin zutela, oso adeitsuak izan zirela testuarekin eta ez nuela aldaketa handirik sartu beharrik izango –gero eta garbizaleago egiten ari baikara–, belarrira gogorregia gertatzen zitzaizkidan «estudiatzen», «eskribitzen», «estazio» eta antzeko erdarakadaren bat aldatzeko ez bazen.

Aldaketa huts horiek sartzen hasi nintzen, beraz, nahiz eta lerro askotan muturra okerrarazten zidaten gauzak ikusten nituen, ez huskeria lexikoak, baita forzepsarena adinako desegokitasun larriren bat ere, gogaikarriak gertatzen zitzaizkidan lardaskeriak barne, *nouveau roman* zale batentzat bakarrizketaz baliatzea bezala, jasanezinak gertatzen diren errazkeriak. Beraz, han eta hemen perpausak aldatzen hasi nintzen, paragraforen bat ere bai –neurea zenez, ez bainuen testua errespetatu beharrik–, eta azkenerako, bosgarren kapitulutik aurrera batez ere, ia dena berridazteari ekin nion, errazago gertatzen baitzitzaidan. Oso lan neketsua eta aspergarria izan da, esan dut lehen ere,

testua traizionatzea bai bainuen, baina neurri batean baino ez, nolabait esateko, lehengo bera izaten jarraitu behar zuelako. Esango nuke lortu dudala, jatorrizko bertsioa berean mantenduz, punturen bat argitzeaz gain nobela han eta hemen sarriegi kaltetzen zuten desegokitasun narratiboez libratzea, eta iruditzen zait lehen ere irakurrita lukeen norbaitek oraingo bertsio hau berrirakurtzeko lana hartuko balu, ez litzatekeela konturatuko egin ditudan aldaketez.

Esan dezadan, bukatzeko, esku artean duzun argitalpen honen aurrekoan ere ez dela forzepetik azaltzen. Antza denez, argitalpen horretan, edo aurrekoren batean akaso, erne egon nintzen urteetan zehar obsessionatu ninduen hutsegitea zuzentzeko. Hitz bat baino ez nuen aldarazi: «zunda» eskatzen du ginekologoak, seigarren argitalpenean behintzat, forzeparen ordeztatik, egiaz, askoz aproposagoa dirudi bete behar duen lana betetzeko. Beraz, obsesio gehienak bezala, alferrik abaildu nau tresna kirurgiko horren oroimenak, azken urteotan behintzat. Edo, beharbada, beste hutsegite askoren sinbolo baino ez zen nire subkontzientean. Dena den, gainetik kendu nahi nuen oroimen obsesio aztoratzaile horri esker, nire gaztaroari aurre egiteko adorea izan dut eta berarekin bakea egiteko parada.

RAMON SAIZARBITORIA

2007

1

Arrazoi duzu, geltokietako buffetetan ematen duten kafeak ez du kafe izena merezi. Izan al zara inoiz Italian? Ez? Ai, Italiako kafea! Mamma mia! Italiako ristrettoak! Un ristretto signore? Eta a zer-nolako kafea ateratzen dizuten... Beno, niri, egia esateko, geltokietako buffetetan ematen duten kafea ez zait gustatzen, buffetak berak gutxi, eta geltokiak gutxiago. Geltokiak..., geltokiak..., deus ez.

Geltokiak tristeak izaten dira: bagoi abandonatuak, tren bat joaten. Agur! Agur! Maletak, besarkadak, malkoak... Traka-traka, traka-traka, bagoi abandonatua... Beste kafe bat? E, hi, gazte! Eta kopatxo bat? Hi, gazte, bi kafe eta bi kopa. Bai, edozein marka. Ba geltokiak ez zaizkit laket, baina geltokietan gutxien atsegin zaidana... Ez, ez, beltza erretzen dut. Zuk ere ikusi izango zenuen edozein geltokitan neskatoren bat, maleta eskuetan duela, trenen baten zain. Zenbat ikusten dira gero? Batzuetan pentsatu izan dut *Protection de la Jeune Fillee* jendeari zirrara

eragiteko propaganda bezala ez ote dituen jartzen. Ni hunkitu egiten naute; haur bat jotzen ikustea eta neska gazte bat maleta batekin, bakarrik, trenaren zain, gehien tristatu izan nauten bi gauzak direla uste dut. Zergatik? Neska horren patua tren horrek ekarri eta eramango duela pentsatzen dudalako nahi ez badut ere. Bai, bai, bai, jakina, egiten dituk beste era bateko gogoetak. Ama ikustera joango duk, edo egun batzuk Riemmesen alaiki pasatzera... Baina ez! Azkenean derrigorrezko zait abandonatutako nes-kato bat dela pentsatzea eta tren horrek galbidera eramango duela. Zertan oinarritzen naizen hori pentsatzeko? Ezertan ere ez, egia esan. Nire esperientziari kasu eginez, kontrako arrazoia izango litzateke logi-koena. Begira... gazte urteak joan bazaizkit ere... Zenbat, zenbat botatzen dizkidazu? Eskerrik asko. Ba ni, Marlon Brando ez naizelarik ere, iaioa naiz gel-tokietan maleta batekin bakarrik dauden neskatoen adiskidetasuna lortzen. Zenbat izango dira ba... Pi-loa. Piloa dira, bai, zirkunstantzia horretan ezagutu ditudanak, eta egia esan, ez dut arrazoirik senti-mendu hori, susmo beltz hori izateko. Ez, ez, hori Ci-dera doan korreoa da. Ba gehienak, kasu bakarren bat izan ezik, neska sanoak ziren, guraso pare batekin eta estudiatzera edo dibertitzera zihoazenak, zihoazen lekura. Gainera, neska batek Riemmeseko trena bere

buruaz beste egiteko asmoz hartuko lukeela pentsatzea, suizidioa hautakizunik txarrena bezala hartuz, ez da logikoa, zeren eta suizidatu, dagoen lekuan egingo bailuke, besterik gabe. Bestalde, kapritxo hori izanik ere, ez luke maletaren beharrik izango. Baina zer nahi duzu? Ni horrelakoa naiz, eta dagoeneko ezin aldatuko naiz gainera. Ez dut logikaren aztarrenik ere ene buru handi honetan, eta nola diren gauzak, e?, bi-daia baten aurreko bi egunak munduko geltokietan bakarrik aurkitzen diren neskato horietaz pentsatzen pasatu ohi ditut. Lokartzea ere zaila egiten zait, eta azken momentuan –ikus duzu nola Caporal erretzen dudan–, ba... gorri-pakete bat erosten dut ziurki aurkituko dudanari eskaintzeko.

Hamabi urtekoa, e? Bai, noski, neskato bat ere izan bazenute... Bikote bat izaten da egokiena. Zer nahi duzu ba adin horretan...? Zigarrotxo bat? Eskolak, eskolak... Nola esango nizuke? Eskolek ez dute pertsona osatzen, ez dute hezten. Har dezagun edukazioa, esate baterako. Manerak edo jendetasuna, nahi duzun bezala. Ikastetxeetan jendetasun modu bat irakasten zaigu. Gai bat beste askoren artean. Matematika eta edukazioa, algebra eta atsoei eskuan nola musu eman. Gero, urteak aurrera, praktikan jartzeko garaian, edukazioarekin, beste gaiekin bezala, bistan geratzen da ez zaigula behar bezala irakatsi.

Praktikan, herrenak garela, nabarmen-nabarmen. Esate baterako: atso zahar bati autobusean lekua utzi behar zaiola jakinik ere, nola egin, beste guztien aurrean nabarmendu gabe? Nola egin buruko erraietaraino gorritu gabe? Ni, horregatik bakarrik, eta atsoari lekua oso pozik utziko niokeelarik ere, leihotik begira jar-tzen naiz, ikusiko ez banu bezala.

Gehiago? Oilaskoa nola jan behar den badakigu. Erakutsi zitzaigun, baina balio ez duen teknika batekin. Ez? Ez al da egia? Ni behintzat, kirurgialari baten trebetasunaz oilaskoari erasotzera prestatzen naizen gehienetan, mahaikideek, jende dotorea izanda ere, atzaparrekin hartzen dutela ikustean, zer egin jakin gabe geratzen naiz, erabat harrituta nire teknika-ren balio ezagatik. Esan ezazu nahi duzuna, eta esan bezate nahi dutena! Erakutsi zaiguna alferrikakoa zaigu eguneroko bizitzan. Ez zaizu hala iruditzen? Ene Jainkoa, zenbat gauza ezkututzen diren edo gaizki erakusten eskola eta kolegioetan! Ez, gizona, hori Hammanera doa, nik abisatuko dizut... Bai, bai, bai, zenbat alferrikako gauza, bai horixe, zenbat gauza alferrikako. Esate baterako, eta hau ez didazu ukatuko, ez al da garrantzitsuagoa geltoki batean maleta batekin bakarrik dagoen neskatoari zigarroa eskaintzen jakitea atsoei eskuak nola miaztu jakitea baino? Eta hara, hara... Ez al da inportanteagoa gaixoak

bisitatzea baino, geltokietan bakarrik dauden neska-toei konpainia egitea? Ni iritzi horretakoa nauzu behintzat, eta ez dut kontrako arrazoi bat ere ikusten, sua mesedez... Nik ez dut asko bidaiatu... eskerrik asko... baina kontsidera ezazu zelako beltz eta garratz behar duen ikusi etorkizuna neskato batek RENFEko geltoki batean. Konturatzen al zara? Bizitza bere erlatibismo osoan agertzen zaio, trenaren zain bi, bost edo sei ordu egon beharko duen ez dakielarik. Eta Frantzian SNCFko tren baten zain...? Greba egiteko beti prest dauden funtzionario horien artean? Gizon batek, gazte izanik hobe, salba ditzake destinoaren atzaparretatik... Ez al zaizu iruditzen? Eskasa, eskasa, eskoletako edukazioa...

Estiloa izateko edukazioa behar da izan. Eskoletan edukazioa ematen ez delarik, ezin ba estiloric eman. Hau silogismo bat dela uste dut... Eta beste gauza bat, edukazioak soilki ez du estiloa ematen... Ez, ez, eskerrik asko, nahiago ditut nire Caporalak... beno, zerbezara pasatuko naiz, ni ez naiz oso zerbezazalea, baina noizbehinka... Hi, bi zerbeza! Estiloa berez izaten den gauza da... Edukazioa lortu egiten da, estiloa edukitzeko, berriz, jaiotzez puntu bat izan behar, gero urteak aurrera garatzeko.

Urteetan atsoei eskuetan musu emanaz, azkenik estilo bat lortzen da... Burua behar bezala makurtu

eta abar. Estiloa? Oso inportantea! Nola ez du ba izan behar? Estilorik gabeko pertsonak, eta ez komunistek, egiten dute mundua atsekabea.

Beti gai bati helduko diot, adibide askorekin harria ez galtzarren. Edukazioaren neofito bat berehala nabarmentzen da. Ez du oraindik estilorik. Borondate oneko haurrak borrokatu egiten dira atsoei autobusean jarlekua uzteko. Ez dakite bi hatzekin bizkarrean nola ukitu, eta ezta ekintza ona egiteak zabaldutako irribarrea estaltzen ere. Estilorik gabeko gizakumeek duintasuna galtzen dute ate aurrean nor lehendabizi pasatu eztabaidatuz. Gauza hauetan, egunero agertzen zaizkigunak guztiak ere, jendeak estilorik ez badu, nola izango du, aukera batzuetan bakarrik presentatzen direnetan? Zer nahi duzu... Ezin estilorik izan!

Noiz eta nola atera behar da tabako-paketea patrikatik? Nola jakin ahotsaren inflexio justua «erretzen duzu» galdetzerakoan? Edozerk samindu dezake geltoki batean maleta batekin bakarrik dagoen neskatoa, edozein estilo faltak-edo beldurtu dezake. Estilorik gabeko edozeinen hutsegiteagatik, patuak, tren bihurturik, galbidera eraman dezake neskatoa abiada bizian. Hi, Caporal-pakete bat. Ahokorik gabe, gizona!